

Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala Consejo Sectorial de Memoria Histórica

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2016ko ekainaren 15a / 15 de junio de 2016 Udaletxeko Pleno aretoan /Salón de Plenos del Ayuntamiento 18:00etan / A las 18:00 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	19:55ean / A las 19:55 horas

GAI-ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

- | | |
|---|--|
| 1.- Aurreko bi saioetako akten onartzea. | 1.- Aprobación de las dos actas anteriores. |
| 2.- 2017rako proposamenak bozkatzea. | 2.- Votación de las propuestas para el 2017. |
| 3.- Lan-talde bat eratzeko proposamena. | 3.- Propuesta de creación de un grupo de trabajo. |
| 4.- Batzorde Iraunkorraren handitzea eta bokalakeraren berrestea. | 4.- Ratificación de los y las vocales de la Comisión Permanente y su ampliación. |
| 5.- Eskariak eta galderak. | 5.- Ruegos y preguntas. |



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen aldeko Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala
Consejo sectorial de Memoria Histórica en favor de quienes padecieron la persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura

BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Alkatea Alcalde
GIZA ESKUBIDEETAKO ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA CONCEJAL DELEGADO DE DERECHOS HUMANOS	
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	<input type="checkbox"/> EAJ-PNV <input type="checkbox"/> PSE-EE <input type="checkbox"/> IRABAZI <input type="checkbox"/> EH BILDU
KONTSEILUKO BOKALAK VOCALES DEL CONSEJO	<input type="checkbox"/> ARANZADI Zientzia Elkarte <input type="checkbox"/> Altunaberri Kultur elkarte <input type="checkbox"/> EDE Fundazioa (Bakeola) <input type="checkbox"/> Genozidioaren biktimen elkarte <input type="checkbox"/> Goldatu <input type="checkbox"/> Hamaika Bide elkarte <input type="checkbox"/> LAB udal sail sindikala <input type="checkbox"/> Lantxabe asoc. De vecinos <input type="checkbox"/> Euskal Memoria Fundazioa <input type="checkbox"/> Miguel Aranburu elkarte <input type="checkbox"/> 1. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1 <input type="checkbox"/> 3. Ospe bereziko pertsona / Persona de especial relevancia nº3
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	PP Valentin Foronda Institutua 1. Ospe bereziko pertsona / Persona de especial relevancia nº1 2. Ospe bereziko pertsona / Persona de especial relevancia nº2 2. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 2
UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Kontseiluaren Idazkaritza. Giza Eskubideen teknikaria Secretaría del Consejo. Técnica de Derechos Humanos
	Giza Eskubideen Ataleko burua Jefa del negociado de Derechos Humanos
	Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitzu burua Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	18 OHKSeKO pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitziburua, Giza Eskubideen atalburua eta Kontseiluko idazkaria. Emakumezkoak / Mujeres = 6 Gizonezkoak / Hombres = 15 18 personas integrantes del CSMH, además del Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social, Jefa de Sección de Derechos Humanos y la secretaria del Consejo.

Saioaren bilakaera:

Desarrollo de la sesión:

BATZORDEBURUAK bilkura hasitzat jo ondoren, honako GAI ZERRENDA lantzeari ekin diote:

1.- Aurreko bi saioetako akten onartzea.

Idazkariak jakinarazi du Kontseiluko kide batek akta literala jasotzeko eskatu zuela, nork zer esan zuen adieraziz. Hala ere, araudiak adierazten du eztabaida garrantzitsuenen laburpena eta lortutako akordioak jaso behar direla. Horrela jarraituko dugu, ezin daiteke-eta pertsona bakoitzak esandakoa hitzez hitz jaso.

EH Bilduren ordezkariak antzeman du bere abizena gaizki idatzita dagoela, eta Irabazirenak akats bat aurkitu du: "Lombardiako lehorraratzea" jartzen duen tokian "Normandiako" behar luke. Biak zuzenduko dira.

Onartutzat jo dituzte bi aktak.

2.- 2017rako proposamenak bozkatzea.

Azaldu dute jasotako proposamenak bi talde handitan sailkatu dituela Batzorde Iraunkorrek: unean uneko ekintzak (erraz egiteko modukoak) eta proiektuak (epe ertain/luzera egitekoak eta hausnarketa behar dutenak). Lehendakariak proposatu du lehenak berehala bozkatzea, eta bigarrenak lan taldean jorratzea.

Hala, proposamenak banan-banan bozkatzeari ekin diote, eta hauexek izan dira emaitzak (ikusi erantsitako taula ere bai):

➤ 1. proposamena: "Donostiako Oroimen Historikoaren eguna": irailaren 13a bozkatu lehenbizi (betiere omenaldi eta oroitzapenerako egun gisa) eta ondoren uztailaren 28a.

Bi datak bereiz bozkatu dituzte, eta emaitza hauxe izan da:

- Irailaren 13a: 15 boto alde, 1 kontra eta 2 abstentzio.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

1.- Aprobación de las dos actas anteriores.

La secretaria informa de que un integrante del Consejo pidió que se recogiera el acta literal, explicitando quién dijo qué. Sin embargo, el reglamento indica que hay que recoger un resumen de los principales debates, así como los acuerdos alcanzados. Así se va a seguir haciendo, ya que no es factible recoger literalmente lo dicho por cada persona.

La representante de EH Bildu ha detectado que su apellido está mal escrito, y la de Irabazi, ha encontrado una errata, donde dice "desembarco de Lombardía" debería poner "Normandía". Se corregirán ambas.

Se dan las dos actas por aprobadas.

2.- Votación de las propuestas para el 2017.

Se explica que la Comisión Permanente ha clasificado las propuestas recibidas en 2 grandes grupos: las acciones puntuales (de realización relativamente sencilla), y los proyectos (a medio/largo plazo y que requieren de reflexión). El Presidente propone votar inmediatamente las primeras, y trabajar las segundas en un grupo de trabajo.

Así, se procede a votar una a una las propuestas, quedando las mismas de esta manera (ver también tabla adjunta):

➤ Propuesta nº 1: "Día de la Memoria Histórica de Donostia": comenzar votando el 13 de septiembre (siempre como día de homenaje y conmemoración) y luego el 28 julio".

Se votan por separado las 2 fechas, obteniéndose el siguiente resultado :

- 13 de septiembre: 15 votos a favor, 1 en contra y 2 abstenciones.

- Uztailaren 28a: 7 boto alde, 1 kontra eta 10 abstentzio.

Hortaz, erabaki dute irailaren 13an ospatzea Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna.

➤ 2. proposamena: II. Errepublikako Donostiako Ituna oroitzen duen plaka berriz jartzea, Garibai kalean.

14 boto alde, batere ez kontra eta 4 abstentzio.

➤ 3. proposamena: Udalak erregimen frankistarekin lotutako sariak erretiratzea.

15 boto alde, batere ez kontra eta 3 abstentzio.

➤ 4. proposamena: kale berri bati Julio Maeso izena jartzea.

12 boto alde, batere ez kontra eta 6 abstentzio.

➤ 5. proposamena: oroigarria jartzea Salvador Allende parkean, non frankistek hilketak burutu zituzten.

12 boto alde, batere ez kontra eta 6 abstentzio.

➤ 6. proposamena: eskultura bat jartzea emakumeen omenez.

14 boto alde, batere ez kontra eta 4 abstentzio.

➤ 7. proposamena: oroigarria jartzea frankismoaren garaiko torturen tokian (Gobernu Zibilaren plaza, Pio XII.a).

12 boto alde, batere ez kontra eta 6 abstentzio.

➤ 8. proposamena: "Boluntario Antifaxisten plaza" izena ipintzea Amarako geltokiaren ondoko plazari.

10 boto alde, batere ez kontra eta 8 abstentzio.

- 28 de julio: 7 votos a favor, 1 en contra y 10 abstenciones.

Se decide, por tanto, conmemorar el 13 de septiembre, como Día de la Memoria Histórica de Donostia.

➤ Propuesta nº 2: Re-colocación de la placa en recuerdo al Pacto de San Sebastián de la II República, en la C/ Garibai.

14 votos a favor, ninguno en contra y 4 abstenciones.

➤ Propuesta nº 3: Retirada de distinciones del Ayuntamiento relacionadas con el régimen franquista.

15 votos a favor, ninguno en contra y 3 abstenciones.

➤ Propuesta nº 4: Poner a una calle nueva el nombre de Julio Maeso.

12 votos a favor, ninguno en contra, 6 abstenciones.

➤ Propuesta nº 5: Colocar recordatorio en el Parque Allende de Bidebieta donde franquistas perpetraron asesinatos.

12 votos a favor, ninguno en contra, 6 abstenciones.

➤ Propuesta nº 6: Colocación de una escultura en homenaje a la figura de la mujer.

14 votos a favor, ninguno en contra, 4 abstenciones.

➤ Propuesta nº 7: Colocar recordatorio en lugar de torturas del franquismo (parque de Gobierno Civil en Pio XII).

12 votos a favor, ninguno en contra, 6 abstenciones.

➤ Propuesta nº 8: Denominar "Plaza de los Voluntarios antifascistas", a plaza al lado de la estación de Amara.

10 votos a favor, ninguno en contra, 8 abstenciones.

➤ 9. proposamena: Kontseiluaren araudian helburu hauek sartzea: berriro ez gertatzea bermatzea eta Giza Eskubideen arloko nazioarteko araei atxikitzea.

15 boto alde, batere ez kontra eta 3 abstentzio.

➤ 10. proposamena: Aieteko eskulturaren "Urte haietan" ekitaldia egitea.

12 boto alde, 1 kontra eta 5 abstentzio.

Proposamen guztiak onartu dituzte, adostasun maila desberdinarekin.

Talde batzuek beren botoa azaldu nahi izan dute:

PSEren ordezkariak aipatu du, Silva Muñoz Herri Lanen ministroari emandako hiriaren dominari dagokionez, saria eman ziotela frankismoaren garaian Donostiako saihebidia egitea sustatzearen. Hala ere, ados egongo litzateke domina kentzearekin, jeneral frankista izan zen aldetik. Kale bati Julio Maeso izena jartzeari dagokionez, gogorarazi du badaudela merezi duten pertsona eta talde gehiago, batez ere emakumeak. Hori dela eta, zerrenda handitzea proposatu du. Bestalde, proposatu du Eusko Jaurjaritzaren "Memoriaren ibilbideak" ikerketarekin bat etortzea, plakak eta oroigarriak ipintzean.

EH Bilduren ordezkariak esan du 4. proposamenaren alde bozkatu duela, zeinetan bereziki pertsona bat aipatzen den. Alabaina, hori merezi duten beste hainbat pertsona ere kontuan hartzeko eskatu du; Kasilda Hernández, adibidez.

Irabaziren ordezkariak zehaztasun falta nabaritu du 6. proposamenean, baina alde bozkatu du. LABen ordezkariak, proposamena egin zuenak, azaldu du emakumeen moduan indarkeria gehigarria sufritu zutenak nabarmendu nahi zituztela.

Lantxaberen ordezkariak eskatu du beste hiru izen gehitzeko 4. proposamenean: Jesus Larrañaga, Sebastian eta Luis Zapirain anaiak eta Imanol Asarta, oso pertsona ezagunak errepublika babestearren Donostian. 8.

➤ Propuesta nº 9: Incluir en los objetivos de la normativa del Consejo las garantías de no repetición y la adhesión a las normas internacionales en materia de DDHH.

15 votos a favor, ninguno en contra, 3 abstenciones.

➤ Propuesta nº 10: Celebrar un acto en la escultura de Aiete "Aquellos años".

12 votos a favor, 1 en contra, 5 abstenciones.

Quedan todas las propuestas aprobadas, con distintos niveles de consenso.

Algunos grupos piden explicar su voto:

El representante del PSE menciona, respecto a la medalla de la ciudad concedida al ministro de obras públicas Silva Muñoz, que éste personaje fue distinguido al ser quien potenció la realización de la variante de San Sebastián en el franquismo. Sin embargo, en calidad de general franquista estaría de acuerdo con retirarle la medalla. Respecto a la idea de poner el nombre de Julio Maeso a una calle, recuerda que hay más personas y colectivos que lo merecen, especialmente mujeres, por lo que propone ampliar la lista. Por otra parte, propone que el tema de la colocación de placas o recordatorios, se encaje con la investigación de Gobierno Vasco, "Senderos de la memoria".

La representante de EH Bildu dice que ha votado a favor de la propuesta nº 4, que menciona a una persona en particular, pero pide que se tenga en cuenta que hay otras muchas que también lo merecen, como Kasilda Hernández.

La representante de Irabazi ve falta de concreción en la propuesta nº 6, pero ha votado a favor. La representante de LAB, quien hizo la propuesta, explica que querían que se destacase especialmente a quienes, como las mujeres, sufrieron una violencia añadida.

El representante de Lantxabe pide añadir otros 3 nombres a la propuesta nº 4: Jesús Larrañaga, los hermanos Sebastián y Luis Zapirain y Imanol Asarta, personas muy conocidas por su defensa

proposamena dela eta, abstenitzea erabaki du, izenean sakondu beharra baitago.

LABen ordezkariak baieztatu du proposamen guztien alde bozkatu duela positibotzat jotzen baititu. Datei dagokienez, esan du Donostiako Oroimen Historikoaren eguna bezala nahiz eta bat aukeratu, biak oroitu daitezkeela, ez dagoela zertan aukeratu. LABek irailaren 13a proposatu zuen, baina kontsentsurik izan ez balitz ez zukeen uztailearen 28aren kontra bozkatuko. Alkateari eskatzen dio, irailaren 13rako hiru hilabete besterik geratzen direnez, egin beharreko ekimenak garaiz antolatzeko.

EDE Fundazioaren ordezkariak aipatu du garrantzitsua dela ildo estrategikoak zehaztea, eta horrela Kontseiluko kideek haien esperientzian oinarrituta eman ahal izango dutela iritzia. Esparrua mugatu beharra dago eta hor kokatu ekintzak. Halaber, garrantzitsua da ikerketa sakon bat egitea, ekintzak zehaztu aurretik ikuspegi orokor bat izateko. Nolanahi ere, esan du beharbada hori eginda dagoela eta ez duela horren berri.

Miguel Aranburu historiagileen elkartearen ordezkariak adierazi du garrantzitsua dela emakumeen gaia gogoan izatea, eta gogorarazi du Donostian Clara Campoamorren eskultura bat dagoela, ez oso ezaguna. 8. proposamenean, iruditu zaio "boluntario antifaxistak" baino izen egokiagoa bilatu behar dela, gogorregia deritzo eta. Zehaztu du, "omenaldi" eta "ospakizun" terminoak erabili ordez, "oroitzapen" jarriko lukeela, historiarekin lotura handiagoa duten terminoak erabiltzearen, aseptikoagoak.

Giza Eskubideetako zinegotzi ordezkariak zergatik abstenitu den azaldu du: haren ustez, 9 proposamenak 4 talde handitan bana daitezke:

- Ospakizunak, plakak eta abar, Eusko Jaurlaritzaren "Memoriaren ibilbideak" lanarekin lotuta.
- Kale izenak: haren esanetan, Gune Publikoen Batzordeari dagokio iritzia ematea, eta ez du hura baldintzatu nahi.

de la república en Donostia. Respecto a la propuesta nº 8, ha decidido abstenerse, ya que se debe profundizar en el nombre.

La representante de LAB afirma que ha votado que sí a todas las propuestas, por valorarlas como positivas. Respecto a las fechas, dice que, aunque se haya elegido una como Día de la Memoria Histórica de Donostia, se pueden conmemorar ambas, no hay por qué elegir. LAB propuso la del 13 de septiembre, pero si no hubiera consenso no hubiera votado en contra de la del 28 de julio. Solicita al Alcalde que, quedando tres meses para que llegue el día 13 de septiembre organice los actos correspondientes con tiempo.

La representante de EDE Fundazioa dice que es importante que se marquen las líneas estratégicas a seguir, y que así las personas integrantes del consejo podrán dar su opinión desde su experiencia. Definir el marco y ahí ubicar las acciones. Es importante también realizar una investigación en profundidad, para tener la perspectiva global antes de concretar acciones. Aunque dice que quizás eso ya se ha hecho y lo desconoce.

El representante de la asociación de historiadores Miguel Aranburu dice que es importante recordar el tema de las mujeres, y recuerda que en Donostia hay una escultura de Clara Campoamor que no se conoce demasiado. En la propuesta nº 8, le parece que habría que buscar un nombre más adecuado que "voluntarios antifascistas", ya que le parece demasiado duro. Matiza que en vez de utilizar los términos "homenaje" y "conmemoración", pondría "recuerdo", por usar términos más relacionados con la historia, más asépticos.

El concejal delegado de Derechos Humanos explica por qué se ha abstenido: cree que las 9 propuestas se pueden agrupar en 4 grandes grupos:

- Conmemoración, placas, etc. relacionado con el trabajo "Senderos de la memoria" de Gobierno Vasco.
- Nombres de calles: entiende que es la Comisión de Espacio Público la que se tiene que posicionar al respecto, y no quieren condicionarla.

- Araudia: dagoena nahikoa dela uste du.

- Ohoreak erretiratzea: ez daki zein ohoreri egiten dien erreferentzia, mota askotakoak baitaude; eta, halaber, desadostasuna dago Oroimen Historikoaren Legeak barne hartzen dituen gaien inguruan.

Lehendakariak azaldu du gobernuak bozketen emaitzak jaso dituela eta aintzat hartuko dituela.

3.- Lan-talde bat eratzeko proposamena.

Giza Eskubideetako zuzendariak galdetu du nor legokeen prest lantalde horretan parte hartzeko.

Hamaika Bide elkartearen zuzendariak beste proposamen bat egin du: erbesteratutako artista, zientzialari... donostiarren ekarpenak ezagutaraztea. Lehendakariak eskatu du adostutako prozedura errespetatu behar dela, eta, proposamenak aurkezteko epea egon zenez, ez litzateke egokia orain proposamen bat egi-
tea.

Lantalde horren eginkizunaren inguruan zalantza batzuk sortu direnez, Giza Baliabideetako zinegotzi ordezkariak argitu du, Batzorde Iraunkorraren proposamenari jarraituta, lantaldeak berak erabakiko duela zer proposamen landu eta nola antolatu. Adibidez, webgune bat sortzeko proposamena egonez gero, lantaldeak ez luke webgunea egingo, jakina; bai-
zik eta proposamen bat egingo luke bertan jaso beharreko edukien inguruan.

Lehendakariak eskatu du, proposamenak aurkezteaz eta babesteaz gain, horien garape-
nean parte hartzeko konpromisoa ere izateko. Miguel Aranburu elkartearen ordezkaria parte hartzeko prest legoke, eta gogorarazi du oraindik lan eskerga dagoela egiteko.

Altunaberriren ordezkaria ere parte hartzeko prest legoke, eta zehaztu du balio demokrati-
koak eta bizikidetzarako balioak indartu behar direla, dogmatismoaren eta intolerantziaren aurrean.

- Normativa: entiendo que es suficiente la que hay.

- Retirada de honores: duda de a qué honores se refieren, ya que hay muchos tipos, y también hay discrepancia sobre lo que abarca la Ley de la Memoria Histórica.

El Presidente explica que el gobierno recoge los resultados de las votaciones y los tendrá en cuenta.

3.- Propuesta de creación de un grupo de trabajo.

El director de Derechos Humanos pregunta quién estaría dispuesto a tomar parte en este grupo de trabajo.

El representante de la asociación Hamaika Bide realiza una nueva propuesta: dar a conocer las aportaciones de artistas, científicos, etc. De donostiarres exiliados, a lo que el presidente pide que hay que respetar el procedimiento acordado, y ya hubo un periodo de presentación de propuestas, por lo que no parece adecuado incorporar una ahora.

Ante algunas dudas de cuál sería la función de ese grupo de trabajo, el concejal delegado de Derechos Humanos aclara que en la Comisión Permanente se propuso que el propio grupo decidiera cuáles de las propuestas trabajar y cómo organizarse. Por ejemplo, si una de las propuestas es la realización de una web, el grupo obviamente no realizaría la web, sino que haría una propuesta de cuáles tienen que ser los contenidos.

El Presidente pide que, junto con la formulación y apoyo a las propuestas, se vaya aparejado el compromiso de participar en su desarrollo. El representante de la asociación Miguel Aranburu, estaría dispuesto a participar, recordando que hay un trabajo ingente de investigación por hacer.

El representante de Altunaberi también estaría dispuesto a participar, matizando que lo que hay que hacer es reforzar los valores democráticos y de convivencia frente al dogmatismo y la intolerancia.

EH Bilduren ordezkaria parte hartzeko prest legoke, lantzen den gaiaren arabera, eta gogorarazi du proposamen konplexuak direla, aurrekontua eta langile adituak kontratatzea eskatzen dutenak.

EDE Fundazioak adierazi du hezkuntza kontuetan egin dezakeela ekarpena. 3. ospe bereziko pertsonak ondo deritzo taldea osatzeari, eta uste du eztabaidatzeko gai interesgarria dela gai hauek nola aztertu behar diren. Halaber, gogorarazi du dagoeneko lan handia egin dutela hainbat elkarrek, eta lan akademikoa gizarte mugimenduen eskutik joan behar dela. Lantxaberen ordezkaria ere elkarlanean aritzeko gertu dago.

Talde bakoitzak hiru proposamen aukera ditzala proposatu du lehendakariak, interesik badago taldeak osatu ahal izateko. Irabaziren ordezkariak proposatu du aukeraketa hurrengo kontseilurako uztea. Lantaldea osatzearen gaia Batzorde Iraunkorrean landu eta hurrengo Kontseilura ekarriko dutela adostu dute.

4.- Batzorde Iraunkorraren handitzea eta bokalak berrestea.

Giza Eskubideetako zuzendariak azaldu du lehenik eta behin Batzorde Iraunkorrean daudenak berretsi behar dituztela, eta jarraitu nahi duten galdetu die Euskal Memoria Fundazioari eta 1. herritar norbanakoari; biek baietz erantzun dute.

Ondoren aurkezten denez, araudiak adierazten du oroimen historikoaren Donostiako elkarteetakoak izan behar dutela, gutxienez, Batzorde Iraunkorreko kideen % 50; beraz, 2 postu daude hutsik eta 2 hautagaitza: Altunaberri eta Lantxabe; beraz, ez da beharrezkoa bozkatzea. Biak onartu dituzte.

Horrenbestez, postu bakarra geratuko litzateke elkarte batentzat edo ospe berezia duen pertsona batentzat eta 2 hautagaitza daude: Goldatu eta Miguel Aranburu elkarteak. Hortaz, bozkatzeari ekin diote. (ikusi taula erantsian Batzorde Iraunkorreko hautagaitzen bozketa).

Goldatuk aldeko 8 boto jaso ditu, honako hauen partetik: EH Bildu, Irabazi, Hamaika

La representante de EH Bildu estaría dispuesta a participar, pero en función del tema de que se trate, y recuerda que son propuestas complejas que requieren de presupuesto y contratación de personal experto.

EDE Fundazioa dice que podría aportar en temas de educación. La persona de especial relevancia nº3, ve bien que se realice el grupo y considera que hay un debate interesante acerca de cómo hay que investigar estos temas. Recuerda también que hay ya mucho trabajo hecho por parte de asociaciones, y que el trabajo académico siempre tiene que ir de la mano del movimiento social. El representante de Lantxabe también se ofrece a colaborar.

El Presidente propone que cada grupo elija 3 propuestas, y si hay interés, se puedan crear los grupos. La representante de Irabazi propone que se deje para el próximo consejo la elección de las propuestas. Se acuerda que se trabajará el tema del grupo de trabajo en la Comisión Permanente y se traerá al próximo Consejo.

4.- Ratificación de los y las vocales de la Comisión Permanente y su ampliación.

El director de Derechos Humanos explica que primero hay que ratificar a quienes ya están en la Comisión Permanente y pregunta a Euskal Memoria Fundazioa y a la persona individual nº1 si quieren continuar, a lo que ambos responden que sí.

A continuación, se explica que el reglamento indica que al menos un 50% de integrantes de la Comisión Permanente tienen que ser de asociaciones de memoria histórica de Donostia, por lo que hay 2 puestos libres y 2 candidaturas: Altunaberri y Lantxabe, por lo que no hace falta votar. Ambos quedan aceptados.

Por tanto, quedaría 1 sólo puesto para una asociación o persona de especial relevancia y hay 2 candidaturas: Goldatu y Miguel Aranburu elkarteak, por lo que se procede a votar. (ver tabla adjunta de votación de Candidaturas a la comisión Permanente)

Goldatu obtiene 8 votos favorables, de EH Bildu, Irabazi, Hamaika Bide, Euskal Memoria

Bide, Euskal Memoria Fundazioa, Genozidioaren Biktimak, 3. ospe bereziko pertsonak, 1. herritar norbanakoa eta Goldatu.

Miguel Aranburuk aldeko 7 boto jaso ditu, honako hauen partetik: Alkateak, Giza Eskubideen zinegotzi ordezkaria, PNV-EAJ, PSE-EE, Lantxabe, Altunaberri eta Miguel Aranburu elkarteak.

3 abstentzio egon dira: LAB, Aranzadi eta EDE Fundazioa.

Horrenbestez, Goldatuk Batzorde Iraunkorren parte hartuko du.

5.- Eskariak eta galderak.

LABen ordezkariak galdetu du nola dagoen Argentinako kereilara gehitzeko prozesua. Giza Eskubideetako zinegotzi ordezkariak erantzun du, aurrera egin ahala, ikusten ari direla ez dagoela batere argi udalak nola gehitu daitekeen kereila batera beste estatu batean. Beste erakunde batzuek borondate politikoz eman dituzte urratsak: hemengo epaitegi batean sakaketa jarri, Gasteizen egin bezala; edo informazioa jaso, Iruñean bezala. Oraindik inork ez du eman Argentinako kereilara gehitzeko urratsa. Donostian, nola egin daitekeen eta zer urrats eman behar diren aztertzen jarraitzen da, nahiz eta zaila dirudien. Kontseiluko kideen batek informazioa izanez gero, horren berri ematea eskertu du. Informazio gehiago eskuratzen eta haien kontaktuak Udalarari pasatzen saiatuko dela esan dute Goldaturen ordezkaria, baita 1. herritar norbanakoak ere.

Azkenik, Lantxaberen ordezkariak gogorarazi du oroimenerako bi egun onartu dituztela, irailaren 13a eta uztailaren 28a, eta biak ospatzea aintzat hartzeko eskatu du. Lehendakariak adierazi du udal gobernuak bozketaren emaitza jaso duela, eta egun bakoitza nola ospatuko den ikusiko duela.

Hala, beste aztergairik ez denez, 19:55ean bukatutzat jo dute bilera.

Aktaren egilea: Silvia Carballo

Fundazioa, Genozidioaren Biktimak, persona de especial relevancia nº3, persona individual nº1 y Goldatu.

Miguel Aranburu obtiene 7 votos favorables, de el Alcalde, Concejal delegado de Derechos Humanos, PNV-EAJ, PSE-EE, Lantxabe, Altunaberri y Miguel Aranburu elkarteak.

Hay 3 abstenciones: LAB, Aranzadi y EDE Fundazioa.

Por tanto, entra Goldatu a formar parte de la Comisión Permanente.

5.- Ruegos y preguntas

La representante de LAB pregunta cómo está el proceso de formar parte de la querrela argentina. El concejal delegado de Derechos Humanos responde que, a medida que se va avanzando, se va viendo que no está nada claro cómo un Ayuntamiento puede formar parte de una querrela en otro Estado. En otras instituciones los pasos que han dado son de voluntad política: poner una denuncia en un juzgado aquí, como es el caso de Vitoria-Gasteiz, o bien recoger información, como Iruña. Nadie ha dado el paso jurídico aún de entrar a formar parte de la querrela argentina. Desde Donostia, seguimos viendo cómo se puede hacer y qué pasos se deben dar, aunque parece difícil. Agradece que si algún integrante del Consejo tiene información, que la transmita. Tanto el representante de Goldatu como la persona individual nº1 intentarán encontrar más información y pasar al Ayuntamiento los contactos de que disponen.

Por último, el representante de Lantxabe recuerda que han sido aprobadas ambas fechas de recuerdo, el 13 de septiembre y el 28 de julio, y pide que se considere conmemorar ambas. El Presidente afirma que el gobierno municipal ha recogido el resultado de la votación, y verá cómo conmemora cada una.

No habiendo más temas que tratar, se da por finalizada la reunión a las 19:55 h.

Recoge el acta: Silvia Carballo.